

consonni

# Zirriborroak eta gero

Mundu posibleei buruzko  
istorioak eta fabulazioak

EDIZIOA ETA EPILOGOA

Azala

HITZAURREA

Teresa López-Pellisa

ITZULPENAK

Amaia Apalauza Ollo

José Luis Padrón Plazaola

Danele Sarriugarte

Katixa Agirre

Iban Zaldua

Danele Sarriugarte

Karmele Jaio

Belén Gopegui


Harkaitz Cano

Patxi Zubizarreta

Uxue Alberdi

Lucía Baskaran

Gabriela Damián  
Miravete



«Dimentsio itzeleko liburu txiki hau bilatzen baduzue, ez duzue soilik liburu bat aurkituko, baizik eta bizitzeko modu bat. Ez duzue gutxiagorik aurkituko. Ez gutxiagorik».

—**Alfons Cervera, *Postdata, Levante***

«*Zirriborroak eta gero* lorpen hutsa izan da, lehen pauso bat; izan ere, mundua aldatuko duten utopia txikiekin amets egiteko, lehenik eta behin ezagutu egin behar dira. Gai izango ote dira zirriborro hauek paperaz harago joan eta gure etsipena astintzeko?».

—**Santiago Canales, *El Salto***

«Ze garrantzisia den ere horrelako *Zirriboak eta gero* bezalako proiektuak egotea». —**Suelta La Olla, Hala Bedi**

«*Zirriborroak eta gero* edo, bestela esanda, kontakizun laburren bilduma bat gaur egun abian diren eta egiteko beste modu batzuk bilatzen dituzten proiektu alternatiboei ikusgarritasuna emateko».

—**Kultur Leihoa, Euskadi Irratia (EITB)**

«*Zirriborroak eta gero* itsasargi bat da ekaitzaldiaren erdian».

—**Sofía de Juan, *El Diario de la Educación***

«*Zirriborroak eta gero*: ekimen eta alternatiba errealean etorkizun posibleaz fabulatzea etorkizun katastrofikoaren ideiarri ihes egiteko».

—**Hoy por Hoy, Cadena Ser**



**Zirriborroak eta gero**





**Zirriborroak eta gero** etorkizunean irudikatu eta Euskal Herriko alternatiba errealetatik abiatutako fabulazioen liburu bat da:

Errekaleor

Gerrarako Eusko Label Armak plataforma

Lumínica Ambiental

Zaintza-sareak

Ramón Bajo eskola

La Equidad olio-errota

Goienar Taldea

Usurbilgo hirigintza feminista

Karabeleko

Lurralde Elkartuak

**Katixa Agirre** (Vitoria-Gasteiz, 1981). Euskal idazlea da. Bi ipuin-liburu argitaratu ditu. *Sua Falta Zaigu* (Elkar, 2007) eta *Habitat* (Elkar, 2009), eta ume zein gazteentzako hainbat istorioen egilea da. 2015ean bere lehenengo eleberria argitaratu zuen *Atertu arte Itxaron* (Elkar), hainbat hizkuntzatan argitara eman dena. 2018an *Amek ez dute* (Elkar) argitaratu zuen, bederatzi hizkuntzatarara itzulia eta laster zinemara adaptatuko dena. 2022an argitaratu zuen bere azken eleberria, *Berriz zentauro* (Elkar), fikzio espekulatiboaren esparruan sartuz.



Argazkia: Enrique Rey

**Iban Zaldúa** (1966). Historia-irakaslea da, eta donostiar gasteiztar-tua. Ipuingilea da batez ere: *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* (2000), *La isla de los antropólogos y otros relatos* (2002), *Itzalak* (2004), *Etor-kizuna* (2005, Euskadi Literatura Saria), *Biodiskografiak* (2011), *Inon ez, inoiz ez* (2014), *Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak* (2018), *Como si todo hubiera pasado* (2018)... Nobelen (adibidez, *Si Sabino viviría*, 2005koa) eta saioen (2012ko *Ese idioma raro y poderoso* edo 2016ko (*Euskal*) *Literaturaren alde (eta kontra)*, besteak beste) perpetratzailea ere bada. Beraren azken lan argitaratua *Ipuina engainua* narrazio bilduma da (2022). Volgako Batelariak literatura-aldizkariko partaide izan zen.



HIGH FIDELITY

the B-52's™

Argazkia: Eli Zaldúa

**Danele Sarriugarte** (Elgoibar, 1989). Itzultzailea eta idazlea. Bi ele-berri eta zenbait kontakizun argitaratu ditu, eta hainbat egileren lanak euskaratu, besteak beste, Henry David Thoreau eta Assata Shakur. *Argia* aldizkarian elkarrizketa sakonak egiten ditu hiru astean behin.





**Karmele Jaio** (Gasteiz, 1970). Karmele Jaiok hiru eleberri idatzi ditu (*Amaren eskuak*, 2006; *Musika airean*, 2009 eta *Aitaren etxea*, 2019); hiru ipuin-liburu (*Hamabost zauri*, 2004; *Zu bezain ahul*, 2007 eta *Ez naiz ni*, 2012) eta poesia-liburu bat (*Orain hilak ditugu*, 2015). Haren lehen eleberriak oso harrera ona izan zuen; hainbat hizkuntzataraz itzuli da, eta ingelesezko bertsoak English Pen Award saria jaso zuen. *Aitaren etxea*, bere azken nobelak, Euskadi Literatura Saria jaso zuen. Jaioren lanek sari ugari jaso dituzte eta zinemara eta antzerkira egokitu dira, eta haren ipuinak hainbat antologiatan argitaratu dira; besteak beste, *Best European Fiction 2017* bilduman eta *The Penguin book of Spanish short stories* delakoan.



Argazkia: Jon Hernáez

Basoaren erdian, **Belén Gopegui** hazi infinitesimaletik zuhaitzaren adaburura iragaten da, sistema begetaletatik sozioekonomikoetara. Haren liburu eta kontakizunek, argizko hatsen eran, sasitza zeharkatzen dute. Humanitateetan doktorea da (UC3M), eta honako lan hauek argitaratu ditu, besteak beste: *La escala de los mapas* (1993), *La conquista del aire* (1998), *Lo real* (2001), *El lado frío de la almohada* (2004), *El padre de Blancanieves* (2007), *Deseo de ser punk* (2009), *Acceso no autorizado* (2011), *El comité de la noche* (2014) eta *Quédate este día y esta noche conmigo* (2017) eleberriak; *Ella pisó la Luna, ellas pisaron la Luna* (2019) konferentzia, eta *Rompiendo algo* saiakera-bilduma.



Argazkia: Marta Calvo

**Harkaitz Cano.** Idazlea da. Ia genero guztiak landu ditu: eleberria (*Twist, Fakirraren ahotsa*), poesia (*Norbait dabil sute-eskaileran, Pozaren erdia*), saiakera (*Zinea eta literatura, Kandelikara*) zein antzerkia (*Sisiforen paperak, Hondamendia*), baina beti aitortu du narrazio laburra duela kuttun (*Neguko zirkua, Beti oporretan*). Sylvia Plath, Hanif Kureishi, Raymond Carver, Anne Sexton eta Allen Ginsberg ekarri ditu euskarara, eta haren lana dozena bat hizkuntzatara itzulia izan da. Lankidetza estuan aritzen da euskal ilustratzaile, koreografo zein kantariekin.



## Fotos vintage



## Fotos

Am

**Patxi Zubizarreta** (1964). Ordizia du jaioterri eta Gasteiz sorleku. Han sortutako lanetan erroak nabarmentzen dira, hala nola *Atxiki sekretua* obran eta *Urrezko giltza* disko-liburuan, edota *Hiru gutun Iruñetik* nobelan. Baina hegoak ere nabariak dira, batez ere migrazioak eta mundu arabiarra guregana hurbiltzeko orduan, esate baterako *Usoa* eta *Korri, Kuru, korri!* ipuinetan, edota *Eztia eta ozpina* nobelan. Erroak eta hegoak berak egindako Saint-Exupéryren *Printze Txikia* edo Mahfuzen *Mirarien kalezuloa* itzulpenetan ere ageri dira. Lan ugari itzuli eta saritu dizkiote —Aldecoa, Euskadi, Espainiako Nazionala *Zerria-Porcus* lanarekin—, eta, generoak eta diziplinak bateratuz, hainbat ikuskizun eta performance eskaintzen jarraitzen du bai gurean bai atzerrian.



Argazkia: Luis Magán



**Uxue Alberdi Estibaritz** (Elgoibar, 1984). Idazlea eta bertsolaria da. Bi ipuin-liburu (*Aulki bat elurretan*, Elkar, 2007; *Euli-giro*, Susa, 2013), bi nobela (*Aulki-jokoa*, Elkar, 2009; *Jenisjoplin*, Susa, 2017) eta kronika literario bat (*Dendaostekoak*, Susa, 2020) idatzi ditu. Haur-literaturan hainbat lan ditu argitaratuak; haien artean, *Besarkada* (Euskadi Saria 2016), *Hili* eta *Poza* album ilustratuak. Alfonsina Storniren poemak itzuli ditu euskarara, eta zenbait irakurle-talde gidatzen ditu. *Kontrako eztarritik* saiakerak Euskadi Saria jaso zuen 2019an. Bertsolaritza eta feminismoa uztartzen dituzten hainbat proiektutan parte hartzen du.



**Lucía Baskaran** (Zarautz, 1988) *Gorputz madarikatuak* (Alberdania, 2019 - Temas de Hoy, 2019) eta *Partir* (Expediciones Polares, 2016) eleberrien egilea da. *Ya no recuerdo qué quería ser de mayor* (Temas de Hoy, 2019) ipuin-bilduman parte hartu du, eta Alix Kate Shulmanen *Memoirs of an Ex-Prom Queen* itzuli du gaztelaniara, *Memorias de una ex reina del baile* izenburupean. *El País*, *Diario El Salto*, *El Periódico de España* eta *Glamouren* idatzi izan du, beste hainbat argitalpenen artean. Gaur egun, hirugarren eleberria idazten ari da, Literatura feminista eta LGTBIQ+ irakasten du, eta Donostian bizi da.



**Gabriela Damián Miravete** Mexiko Hirian jaio zen. Haren istorioak ingelesera, italierara, portuguesera, frantsesera eta euskarara itzuli dira, eta Hugo Sariaren eta World Fantasyren antologia finalistetan argitaratu. Zenbait lankidetzaren sorreran parte hartu du, hala nola Mexicon: Imaginación y Futuro, eta Cúmulo de Tesla arte-eta zientzia-kolektiboa, zeinak *Mis pies tienen raíz* (Océano, 2021) argitaratu baitzuen duela gutxi. «Soñarán en el jardín» lana idatzi zuelarik, non feminizidiorik gabeko etorkizuneko Mexiko bat irudikatu baitzuen, James Tiptree, Jr. 2018 saria irabazi zuen (gaur egun, Otherwise, hainbat egile entzutetsuk jaso izan duten saria, hala nola Ursula K. Le Guinek, Kelly Linkek eta Akwaeke Emezik). Etorkizuna pentsatzeko espazio ugaritan parte hartu du; esate baterako, «Futures d'avant» programan (Brasilgo aarea kuradore-plataformaren eta Parisko Jeu de Paume museoko espazio birtualaren artean gauzatu), *Meteotopian* (injustizia klimatikoko fikzioak, Osloko Unibertsitatea, Norvegia); Co-Futures proiektuan, Arizona State Universityrekin (EUA); eta *Zirriborroak eta gero* ekimenean (Azala sorkuntza-espazioa, Euskadi). Etorkizuneko Ikasketen Historiako irakaslea da Mexiko Hiriko Diseinu, Zinema eta Telebista Zentroan, eta *La canción detrás de todas las cosas* liburuaren egilea (Odo Ediciones, 2023).





## **Zirriborroak eta gero**

**Katixa Agirre**

**Iban Zaldúa**

**Danele Sarriugarte**

**Karmele Jaio**

**Belén Gopegui**

**Harkaitz Cano**

**Patxi Zubizarreta**

**Uxue Alberdi**

**Lucía Baskaran**

**Gabriela Damián Miravete**

Itzultzaileak: Amaia Apalauza Olló, Danele Sarriugarte  
eta José Luis Padrón Plazaola



Egileak **Katixa Agirre, Iban Zaldúa, Danele Sarriugarte, Karmele Jaio, Belén Gopegui, Harkaitz Cano, Patxi Zubizarreta, Uxue Alberdi, Lucía Baskaran** eta **Gabriela Damián Miravete**  
Itzulpenak **Amaia Apalauza Olo, Danele Sarriugarte** eta **José Luis Padrón Plazaola**  
Edizioa eta epilogoak **Azala (Arantxa Mendiharat, Idoia Zabaleta eta Ixiar Rozas)**  
Hitzaurrea **Teresa López Pellisa**  
Zuzenketa **Izaskun Gracia**  
Bildumaren diseinua eta maketazioa **Rosa Llop**  
Azaleko irudia **Paula Estévez del Diego**  
Inprimaketa **Alvanova**  
Printed in Spain

**consonni** argitalpenak  
Mirasol Kondearen kalea, 13, LJ1D  
48003 Bilbo  
[www.consonni.org](http://www.consonni.org)

Euskarazko lehen argitalpena:  
2023ko azaroa, Bilbo

ISBN: 978-84-19490-17-9  
Lege-gordailua: BI 01018-2023

Lan hau Creative Commons Aitortu-Ezkomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

Testuen, edizioaren, itzulpenen eta irudien jabetza egileei dagokie.

Jatorrizko argitalpena: *Zirriborroak eta gero* Azalak 2018tik 2022ra bitartean bultzaturiko izen bereko proiektu baten emaitza da.

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

**consonni** argitaletxea Bilboko San Frantzisko auzoko kulturgune interdependente bat da. 1996az geroztik, kultura kritikoa ekoizten dugu, eta, gaur egun, hitz idatzia eta orobat xuxurlatua, entzuna, isildua eta deklamaturia da argitaletxearen apustua: hitza ekintza bihurtua, hitza gorputz bihurtua. Bizi garen munduan eragitea eta hark ere gudan eragitea bilatzen dugu. Letra xehez idatzia eta aldaketa etengabe, izaki androgino eta polizefaloa da consonni, bi superbotere dituen: feminismoa eta entzumena. Distantzia laburretan jokaten dugu.



# Aurkibide

## **Hitzaurre. Etorkizunaren dekalogo**

Teresa López-Pellisa 31

## **Loratze Perimetroa**

Katixa Agirrek Errekaleor fabulatzen du 37

## **Bisita bat Arma Museora**

Iban Zalduak Gerrarako Eusko Label Armak plataforma fabulatzen du 59

## **Zer gertatzen da K herrian ilargi beteko gauetan?**

Danele Sarriugartek Lumínica Ambiental fabulatzen du 87

## **Eskailerapeko**

Karmele Jaiok zaintzarako auzo-sareak fabulatzen ditu 111

## **Izan ginen mundua**

Belén Gopeguik La Equidad olio errota kooperatiboa fabulatzen du 131

## **Kintsugi**

Harkaitz Canok GoiEner fabulatzen du 155

## **Oraina inoiz ez zen hain etorkizun izan. Behingoz hezkuntza inter- resatu zitzaien**

Patxi Zubizarretak Ramon Bajo eskola fabulatzen du 181

## **Ibaia**

Uxue Alberdik Usurbilgo hirigintza feminista fabulatzen du 203

## **Jolas bat baino ez dunk**

Lucía Baskaranez Kiribil fabulatzen du 225

## **Mundua den etxea**

Gabriela Damián Miravetek Lurralde Elkartuak fabulatzen ditu 243

## **Epilogo. Arranpak**

## **Kokatu eta eskertu**

Azala 261



## **Hitzaurre**

### **Etorkizunaren dekalogoa** Teresa López-Pellisa

Itzultzailea: Amaia Apalauza Olló

Etorkizunean pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen erakusten digu. Mendebaldeko kultura beti egon da iraganera begira, oroi-mena izateko eta gure egintzek izan dituzten ondorioak orainaldian pentsatzeko. Iragana kritikotasunez berrikustea behar-beharrezkoa da, baina ezin gara etapa horretan ainguratuta geratu. Fred Polakek zioenez, «erakunde, nazio edo zibilizazio batek etorkizunari buruzko ikuspegi limurtzailerik ez badu eta irmo sinesten ez badu ekintza posible dela, gain behera joango da azkenean». Behin iraganetik gure orainaldia konfiguratu duten arazo eta gatazkak

hautemanda, beharrezkoa da konponbideak proposatzea, aurrera egin eta zailtasun horiek gaindi ditzagun. Konponbideak bilatzea irudimenaren ahalmen sortzailearen mende dago; izan ere, politikoki tresna mobilizatzailea izanik, posibilitaterako agertokiak sortzeko aukera ematen digu. Alternatibak sortzea da etorkizuna eraldatzeko bide bakarra, eta liburu honek hamar aukera proposatzen ditu, *etorkizunaren dekalogo* bat osatuz nolabait.

*Zirriborroak eta gero* proiektuak hamar fabula eskaintzen dizkigu, askotariko alternatiba sozial, kultural, ekologiko, afektibo, hezitzaile, feminista, dekolonial, arrazial, politiko eta ekonomikoetatik abiatuta, komunitate-bizitza ulertzeko eta natura-, giza- eta teknologia-baliabideekin dugun harremana kudeatzeko beste modu batzuk agerian jartzeko. Zirriborro bat behin-behineko testu bat da, alda daitekeena, edo paper zirimarratu bat, hau da, testu potentzial bat (etorkizunean existitzeko aukera duena). Baina aurretik idatzitako zerbait ezabatzea ere bada zirriborratzea; alegia, aukera ematen digu berrabiarazteko, aldatzeko edo *erreal* dena eraldatzeko. Antologia honetan biltzen diren narrazioak fabula gisa aurkeztu ditugu, eta fabula batek agerian uzten ditu hala bizioak nola bertuteak, gizakienak zein gizartearenak, amaieran irakaspenen bat utzita. Horregatik, ipuin hauen helburua zenbait alternatiba eskaintzea eta alternatiba horiek nola eraiki eta nola habitatu erakustea da.

Josefina Ludmerrek *gero etorriko dena* kontzeptua erabiltzen du orainaldia (bir)pentsatzeko kategoria gisa. Haren ustez, errealitatea beti da errealitate historikoa, hots, *gero etorriko dena* orainaldia historizatzeke eta aldaketa imajinatzeke modu bat izango litzateke. Prozesu horretan pentsatzeko, *irudimen publiko*a kontzeptura eramaten gaitu, hau da, «irudi eta diskurtso eran zirkulatzen duen guztia; sare bat ehuntzen duguna eta biltzen gaituena, barnean sartzen zaiguna eta eratzen gaituena. Eta baita indar bat eta *lan kolektibo* bat “*errealitatea*” *fabrikatzen* duena ere».

*Zirriborroak eta gero* proiektua Azalan mamitu zen. Egonaldi artistikoetarako espazio bat da Azala, Arabako Lasiera herrian kokatua, eta han antolatu ziren «futuribleak», esperimentazio teoriko eta artistikorako topaguneak, *irudimen publikoa* martxan jartzeko, zenbait pentsalari, idazle eta artistaren *lan kolektibotik* abiatuta, zeinek beren *ezagutza kokatutik “errealitatea” fabrikatzeko* askotariko moduak proposatu baitzituzten. Fikzioa performatiboa da, eta, horregatik, badu gaitasuna ekoizteko eta eragiteko, eta baita errealitatea sortzeko eta eraldatzeko ere. Donna Harawayk zera gogorarazten digu «Ziborgentzako manifestua» bitxian: «[Z]ientzia-fikzioaren eta errealitate sozialaren arteko mugak ilusio optiko bat dira». Gure kezka (alderdi indibiduala) arazo publikoekin (alderdi soziala) erlazionatzea: horra feminismoak egin duen bidea, *personala politikoa dela* azaleratu zuenetik. Alegia, *iruditeria sozialean* (Castoriadis-en kontzeptua berreskuratuz) eragitea aldaketarako eragile gisa balia daiteke *estatuaren iruditeria ideologikoak* desegonkortzeko.

*Zirriborroak eta gero* zalantzan jartzen ditu gure *mundu sistemo* oinarritzko uste batzuk. «Zer gertatuko litzateke baldin eta...?» galdetuz, orainaldiko arazoetatik atera eta etorkizun berrien aukerak sortu nahi ditu. Posible ote da gizarte postkapitalista bat?, bizi gintezke mugarik gabe?, behar bezala erabiliko al ditugu energia-baliabideak?, nolakoa litzateke mundua argi-kutsadurarik gabe?, posible ote da ekoiztea kapital-metaketarik gabe?, posible ote da ikuspegi feminista eta sostengagarri batez diseinaturiko hiri bat?, ezagutzen al dugu bidaiatzeko modu ekologikoagorik?, imajinatzen al duzu nola biziko zinatekeen hiri hiperteknologiko eta ekologiko batean?, pentsatu al duzu nola atera bizirik energia-krisitik eta gainpopulazio-arazoetatik?, bideragarria ote da familia-instituzio nuklearretik kanpoko zaintza-eredu bat?, posible ote litzateke ekoizpenari eustea lau orduko lanaldiak eginda?, nolakoa izango litzateke heteronormatibitate gabea gizarte bat?,

nolakoa litzateke mundua pentsamendu dekoloniala hegemonikoa balitz?, posible ote da sexu/genero-sistema deuseztatzea?, pentsa zenezake nolakoa litzatekeen patriarkaturik gabeko gizarte bat?, posible ote litzateke Iparrak eta Hegoak elkar ulertzea?, zer praktika-mota egin behar ditugu planetarekin daukagun harremana birpentsatzeko? Galdera horien erantzunak aurkitzeko, ez dago liburu hau irakurtzea baino gauza hobeagorik.

Aldaketa globalak ekintza lokalen araberakoak direnez, antologia honetako kontakizunetan, benetako proiektuak berreskuratu eta etorkizun hurbileko *beste gizarte batean* izango lituzketen eraginez eta ondorioez espekulatu dugu. Arantxa Mendiharatek, Ixiar Rozasek eta Idoia Zabaletak eraturiko lantaldeak sustatu du proiektua, *utopia konkretuak* deritzenak sortzeko asmoz. Utopiez ari garenean, abstrakzio egingaitz eta ezinezkoak datozkigu gogora, baina hamar fabula hauek guztiz kontrakoa dira; hamar ariketa hauetan, abstraktua eta orokorra baztertzen dira, zerbait zehatza eta determinatua ordezkutzen baitute, komunitate-bizitza kudeatzeko auke-retatik abiatuta. Garrantzitsua da gogoratzea komunitate batentzat desiragarri denak ez duela zertan desiragarri izan beste batentzat, eta zenbait praktika sozialen balioa ez dela emendatzen praktika horiek globalizatuz edo unibertsalizatuz. Proposamen hauen alderdirik esanguratsuena haien posibilitate-izaera da, izateko edo existitzeko potentzia edo aukera.

Esan liteke pentsamendu utopikoa desberdintasunean oinarritzen dela sistema soziopolitiko nagusiaren aurrean alternatiba bat imajinatzen duen unetik beretik. Beste mundu batean pentsatzea egintza iraultzailea da; izan ere, aldaketa sakon bat egitea dakar, eta, beste mundu hori birsortuz, deskribatuz, erakutsiz eta proposatuz, irakurleek eskura izango dituzte beren burua identifikatzeko toki bat eta mobilizaziorako zerumuga bat. Fikzioa ez da gizartearen aurkako zerbait, baizik eta haren isla; horregatik, funtsezkoa da kultura hegemonikoan nagusi diren errepresentazio

moduak aztertzea: zer narratiba mota eskaintzen dizkigu?, mobilizazioa sustatzen dute ala paralizatu egiten gaituzte?, ba ote narratiba menderatzailerik edo menderakuntzaren narratibarik? Fikzio espekulatiboak dakarren irudimen politikoaren boterea iraultzailea da, alternatibak eta aldaketarako aukerak eskaintzen dizkigulako: tresna sortzaileak ematen dizkigu, eta orainaldiko arazoak konpontzeko proposamenak. Era horretako narratibak disidenteak eta kontrahegemonikoak dira, hau da, esan genezake halako testuak *eraldaketaren narratibak* direla, gai baitira irakurleak mobilizatzeko. Rosi Braidottik dioenez, «Mendebaldeko postmodernitatean zentzu etiko biziena duten pertsonen artean daude, hain zuzen, zientzia-fikzioa idazten dutenak, denbora hartzen baitute eten bat egiteko eta “Gizon”aren ideal humanistikoaren heriotzaz gogoeta egiteko, eta, gero, kultura garaikidearen bihotzean txertatzen dituzte galera hori eta haren ondoriozko segurtasun falta ontologikoa. Humanismoaren krisia eta haren subjektu bakarra sinboloen atzean ezkutatu nahian, halako espiritu sortzaileek, Nietzscheri jarraituz, konponbiderik intimo eta barnekoenerantz bultzatzen dute krisia». Bestalde, Donna Harawayk diosku fabulazio espekulatiboak eskaintzen dizkigula Antropozenoko eta Kapitalozenoko figurazioak hausten dituzten errepresentazioak sortzeko metaforarik onenak, gizakiak alteritate-*ez-gizatiarrekin* duen harremana birplantea dezan, fikzioak sortzeko, hau da, «*response-ability*aren ZF jokoak», antropolatria arbuatzen lagunduko digutenak. Irudimena ideia eta proiektu berriak itxuratzeko erraztasuna edo gaitasuna da, eta, horren harira, eta Remedios Zafra gogora ekarriz, «irudimena eta inteligentzia aplikatu behar dira, posible dena itxuratzeko». Hamar mundu posible eskaintzen dizkigu etorkizunaren dekalogo honek. Norberak aukeratu dezala gogoak ematen diona.





Edizioa eta epilogo

**Idoia Zabaleta, Ixiar Rozas eta Arantxa Mendiharat**, zein bere interes eta testuingurutik abiatuta, *Zirriborroak eta gero* proiektua pentsatzeko eta martxan jartzeko elkartu dira. Idoiak, **Azalaren** sortzaileak, gertuko ingurunearekin lotu nahi zuen artisten egonaldietarako espazioa; Arantxarentzat, garrantzitsua zen etorkizun bizigarriak pentsatzen lagunduko zuten iruditeriak sortzea; Ixiarri, iruditeria horiek hedatzea eta idazleei bide horretan lagun egitea interesatzen zitzaion.

Hitzaurrea

**Teresa López-Pellisa** Alcaláko Unibertsitateko irakaslea eta Estudios del Futuro laborategiaren zuzendaria da. Zientzifikzioan, ziberfeminismoetan eta literatura fantastikoan espezializatua da. Haren lanen artean, aipagarriak dira *Patologías de la realidad virtual. Cibercultura y ciencia ficción*, *Historia de la ciencia ficción en la cultura española* eta *Historia de la ciencia ficción latinoamericana* (1. eta 2. liburukiak).

Azaleko irudia

**Paula Estévez** (Donostia, 1984) EHU Arte ederretan lizentziatutako komiki-marrazkilaria eta ilustratzailea da. Idatzizko komunikabideentzat eginten du lan komiki eta animazio proiektuak garatzen dituen bitartean. Paulak gainera autoedizioetan eta kolektibitateetan interes handia dauka, horregatik Tupust!, euskal emakume komikilarien elkarteko kidea da eta Guillotina Donostiako autoedizio topaketaren sortzaileetako bat.

Itzulpenak

**Amaia Apalauza Olo** itzultzaile-zuzentzailea da. Hainbat saiakera eta literatura-lan itzuli ditu (besteak beste, Ursula K. Le Guin, Olga Tokarczuk, Slavenka Drakulić, bell hooks eta Angela Davis), eta, itzuli dituen egileek bezala, oinak orainean ezarrita amesten du etorkizunari buruz.

**José Luis Padrón Plazaola** (Legazpi, Gipuzkoa, 1970). Filologia ikasketak egin zituen. Unibertsitateko espezialista Eusko Ikasketetan, graduondokoa. Liburugintzan eta poesian ibilbide oparoa osatu du. 1999an kritika saria jaso zuen. Itzultzailea eta kultur eta sormen eragilea da ogibidez. Lizardiren baratza poesiari buruzko saioa zuzentzen eta aurkezten du, Euskadi Irratian.

**Munduaren sorlekua** bildumak bizitza pentsatzeko, sentitzeko eta adierazteko beste modu batzuk arakutzen ditu. Esanahi berri bat ematen diogu Courbeten margolan ezagunaren izenburuari, begirada feminista eta ironiko batetik, zientziaren, ekonomiaren, kulturaren eta lurraldearen arteko harremanean sakontzeko. Errealitateak espekulatzeko, fikzionatzeko eta diseekzionatzeko literatura. Zurrunbiloan murgilduta, ideia kutsakorrak amplifikatzen eta hasieraren teoriak aktibatzen ditugu.

### **Aholkulari-taldea**

Lagun baten urtebetetze-bazkari batean sortu zen bilduma hau, oharkabean, beste ahots batzuk itzultzeko eta argitaratzeko grinak bultzaturik. Hasierako espirituari leial izan nahian, edukien gaineko aholkulari-talde bat osatu genuen, ez aditu-batzorde murrizt bat, baizik eta iritsi nahi genuen komunitate zabal eta askotarikoa islatuko zuen talde bat. Hala, elkarte ez-sekretu bat eratu genuen, ezagutzak partekatzeko eta haien proposamenak entzuteko. Haietariko batzuk bilduma honetan argitaratzen dira, edo beste batzuetara egiten dute jauzi; beste batzuk ganbaran gordeta geratzen dira; beste batzuk ez dira sekula izango. Zuetariko askok ematen diguzuen babes eta aholkularitza eskuzabal eta sarritan informal hori aitortu nahi dugu. Beste inspirazio-iturri batzuen artean, 2023an honako pertsona hauek osatu dute edukiak proposatu dizkigun talde malgu hori: Ixiar Rozas, Maielis González, Leire Milikua, Helen Torres, Maria Ptqk, Blanca de la Torre, Teresa López-Pellisa, Elisa McCausland, Rosa Casado, *Pikara Magazine*, Arantxa Mendiharat, Arrate Hidalgo, María Navarro, Remedios Vincent, Daniel García Andújar, Verónica Gerber Bicecci, Iván de la Nuez, Alicia Kopf, Maria Colera, Cabello/Carceller, Cristina Ramos González, Rosa Llop, Claudio Iglesias, Constantino Bértolo, Tamara Tenenbaum, Tania Pleitez, Marta Rebón, Rakel Esparza, Lilian Fernández Hall, Mariano Villarreal, Jorge Carrión, Beñat Sarasola, Katixa Agirre, Goizalde Landabaso, Uxue Alberdi, Carlos Almela, Txani Rodríguez, Mónica Nepote, Laura Casielles, Itzea Goikolea Amiano, Ana González Navarro, Mercedes Melchor, Luz Gómez, Georgina Monge López...

**[www.consonni.org](http://www.consonni.org)**

Kultura kritikoa ekoizten eta argitaratzen dugu

## Munduaren sorlekua

*Zirriborroak eta gero* Alvanova inprimategian inprimatu zen, Cambren (Galiza), 2023ko urriaren 25ean, hainbat gauzaren hasierak aktibatuz zituzten hainbat pertsonaren jaiotzaren urteurrenean: Samuel Heinrich Swabe alemaniar naturalista, botanikari eta astronomoa, eguzki-orbanen zikloaren aurkitzailea (1789); Pablo Picasso pintore eta eskultorea (1881); Edwiges de Sá Pereira brasildar hezitzaile, kazetari, poeta eta aktibista feminista (1884); Juan Eduardo Barrios Hudtwalcker txiletar ipuingile, antzerkigile eta eleberrigilea, 1946an Literatura Sari Nazionala jaso zuena (1884); Ivan Morton Niven estatubatuar-kanadar matematikaria (1915); Galina Pavlovna Vixnevskaja (Галина Павловна Вишнёвская) sobietar-errusiar soprano eta aktorea (1926), Errusiako Maria Callas ere deitua; María Djalma Tiberti argentinar idazle eta bidalari nekaezina (1928); Klaus Hasselmann alemaniar meteorologo eta klimatologoa (1931), 2021ean Fisikako Nobel Saria jaso zuena beste fisikari batzuekin batera eta klima-aldaketaren ikerketa sustatzeko European Climate Forum erakundearen sortzaile kideetako bat.

Etorkizunean pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen laguntzen digu, eta, ildo horretan, etorkizunaren dekalogo bat proposatzen digu liburu honek. *Zirriborroak eta gero* proiektuak hamar egile-ren hamar fabula eskaintzen dizkigu: Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Lucía Baskaran, Harkaitz Cano, Gabriela Damián Miravete, Belén Gopegui, Karmele Jaio, Danele Sarriugarte, Iban Zaldúa eta Patxi Zubizarreta. Arabako Azala kreaio-espazioaren gonbidapen batetik abiatuta eta irudimenaren botere bereziaren indarrez, kontakizun bana eraiki zuten hamar idazle horiek, zenbait alternatiba sozial, kultural, afektibo, feminista eta dekolonialetan oinarrituz, argitara ekarri nahian natura-, giza eta teknologia-baliabideekin daukagun harremana kudeatzeko beste modu batzuk. Fikzioa ez da gizartearen aurkako zerbaite, baizik eta haren isla; horregatik, funtsezkoa da eskaintzen dizkigun narratibak analizatzea: mobilizatzeraz bultzatzen dute, ala paralizatu egiten gaituzte? Liburu bakar batean bildu ditugu disidenteak eta kontrahegemonikoak izan nahi duten hamar narrazio horiek, eraldaketaren narrazioak, gehienak euskaraz sortuak. Orriotara dakartzagun ipuinak irakurri eta gero, irudi, ernamuin, erreberberazio, uhin eta indar-eremuen artean ibiliko gara. Irudi bakoitzak konstelazio bat elikatuko balu bezala. Hitz bakoitzak kosmos oso bat argizatuko balu bezala. Nolako funtsa, halako forma. Nolako egurra, halako ezpala. Nolako zirriborroa, halako etorkizuna.

«*Zirriborroak eta gero* lorpen hutsa izan da, lehen pauso bat; izan ere, mundua aldatuko duten utopia txikiekin amets egiteko, lehenik eta behin ezagutu egin behar dira. Gai izango ote dira zirriborro hauek paperaz harago joan eta gure etsipena astintzeko?». —**Santiago Canales, *El Salto***

«*Zirriborroak eta gero*: ekimen eta alternatiba errealean etorkizun posibleaz fabulatzea etorkizun katastrofikoaren ideiarri ihes egiteko».

—**Hoy por Hoy, Cadena Ser**

AZALEKO IRUDIA  
**Paula Estévez**



**consonni**

Kultura kritikoa ekoizten eta argitaratzen dugu  
[www.consonni.org](http://www.consonni.org)